

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Euskal Herria eta Katalunia, aitzindari izateko aukeran

gandean orriotan Arnaldo Otegik proposatutakoa zein asteazkenean Kursaal Quim Torrak esandakoak entzunda, urtebete Euskal Herriaren eta Kataluniaren artean elkarrekiko begirada nabarmen aldatu dela bistan da. Orduan orri honetan bertan nire harridura bikoitza aitortu nuen. Oraindik irailean ginela, Bartzelonara *procés*-aren berri ematera joaten hastean, batekin eta bestearekin hizketan sumatu nuen Euskal Herritik borondate ononez zetozen irakurketa eta aholkuen aurrean nola baiteko itsu-gorkeria. Gure uste apalean, hemen hama markada luzez egindako borrokak Estatuaren egitura, jokamolde eta funtzionamenduaren ezagutza zehatza ematen zigun, baina hori beraiei helarazi nahi genien, berezko duten *seny* horrekin eta harrokeriarik gabe baina harro, hemengo adibidea ez zela beraientzako baliogarria ematen ziguten aditzera. Astebueretan Euskal Herrira bueltan, ordea, txanponaren beste aldea topatzen genuen. Egia da Bilbon hiru manifestazio handi eta beste hainbat ekimen ere egin zirela, baina, arrazoi ezberdinak tarteko, Katalunian egosten ari zenaren tamainako jarrerarik ez genuen aurkitu, isla apal bat baino ez. Zenbait inkestak frogatuko zuten gero Kataluniako gorabeherekiko axolagabekeria zein kezka maila nabarmenak zirela gure herrian, eta hemen bai nabaritu nuela harrokeria puntu bat. Independentziaren aldekoen artean “inbidia osasuntsua” da nagusitu zen kontzeptua, inbidia osasuntsurik izan ez arren.

Elkarri nahiko bizkarra emanda ziren bi herriak elkarri begira jartzen hasi dira orain. Maila politikoan modako ideia baino gehiago dira Otegik, Torrak eta abarrek botatakoak; eta, alor antierrepresiboan, ekimen bakanak baino gehiago dira Kataluniako presoen eta Altsasuko presoen senideen arteko Tolosako mahai-ingurua edota espetxean gaixorik diren euskal herritaren

arren sendagileak Kataluniara gonbidatu berri izana, kartzelari nola aurre egin ulertzeko Euskal Herria baino adibide hoberik ez dela egiaztatu dutelako. Politika-fikzioa ariketa hutsala den arren, zer gertatuko zen iazko urriaren 1ean, Katalunian ez ezik Euskal Herrian ere hautetsontziak jarri izan balira, nolabait arazoa ez zela Katalunia, Estatu espainola baizik, nazioarteari erakutsiz? Eta 1975an Katalunian Euskal Herrian Francoren sistema osoa lurperatzeko bezainbeste indar pilatu izan balitz? Eta Estatu frantsesean, Euskal Herria, Korsika, Kanaky eta abarren arteko balizko elkarlanak ez al lioke Parisi zailduko nazio gatazka guztiak orain arte bezain eroso kudeatzea?

Globalizazioaren tendentzia geldiezinari Estatuak atera diote etekin handiagoa, nazio txikien gainetik (horretaz ondorio batzuk atera zituen ETak berak, az-

Internazionalismoaren aldarria, herrien arteko elkartasuna eta samurtasuna lotzen dituen, motz gelditu da. Aurrera egiteko elkarlana, elkarborroka, beharko da

ken elkarriketan ageri denez). Internazionalismoaren aldarri klasikoa, herrien arteko elkartasuna eta samurtasuna lotzen dituen, motz gelditu da XXI. mende honetan. Elkartasunetik haratago doan elkarlana, are gehiago elkarborroka, landu beharko da Estatu handien –eta Estatuak osaturiko egitura handiagoen– gainetik pasa behar bada. Oso zaila dela irudikatzeko, herri txikien barruan bertan dauden estrategiari buruzko desadostasunen gertuko adibidea ematen digute Urkullu-Otegiren edota Junqueras-Puigdemonten arteko liskarrek. Baina elkarborroka hori zaila bezain ezinbestekoa zaie Europako herriei. Eta bide horretan Euskal Herriaren eta Kataluniaren artekoa aitzindari litzateke. •